

FUNTSEZKO ELKARTEAK

Gure proiektua aurrera eramateko beharrezkoa dugu beste elkarte batzuekin harremanetan jartzea eta elkarlanean lan egitea. Horregatik, enpresako kideok gure proiektua aurkezteari ekin diogu eta gurekin lan egiteko prest egongo liratekeen galdetu diegu.

Bezeroekin harremanetan jartzeko webgunea, www.simme.com, sortu dugu koloreak, diseinuak, etab. ikus ditzaten. Horrez gain, gurekin kontaktuan mantentzeko bide ezberdinak ezarri ditugu bertan: telefono zenbakia, sare sozialak eta posta elektronikoa, esate baterako. Gainera, saldutako produktuen argazkiak ere txertatuko ditugu, bezeroek adibide ugari eduki ditzaten. Baina, bezeroak nahi izango balu, harreman pertsonala izatea posible litzateke, eta horretarako ofizina bat jartzea erabaki dugu, non gutako bat egongo den zalantzak argitzeko, laguntzeko, etab.

Gure produktua neoprenoz egina dago, beraz hura saltzen duten enpresak bilatzeari ekin diogu eta batzuekin kontaktuan jartzea lortu dugu: *Todo En Neopreno SI, Industrias Deportivas Jason SI, Infofinancia Future SI, Comercial De Importacion Proteccion Industrial Y Seguridad Auxiliar SI, ...* Hainbat enpresa aztertu ondoren, *Foam Genesis Tecnology And Design Sociedad Limitada* enpresarekin aliatzea erabaki dugu, lehendik ez genuen ezagutzen baina egokia izan daitekeela ikusten dugu eta gainera, Euskal Herrikoa da, zehazki, BIlbon. Hori dela eta, bertako enpresari produktuak erosiko dizkiogu eta bertara joango gara jasotzera, horrela garraioaren erabilerak dakarren kutsadura murriztuz.

Horregatik, *Eurozon* enpresarekin jarri gara harremanetan, bilatzen ari garen produktua saltzen baitute eta prezio eskuragarrian. Lurrun haren bidez, bidaia batean okupaturik egon diren eserleku guztiak desinfektatu egingo dira eta hurrengo bidaia egiteko prest egongo da autobusa.

Horrez gain, *Inaza* enpresarekin aliantza egingo dugu, eserlekuetan gure produktua jar dezaten. Hori egin eta gero, geure produktua prest egongo litzateke garraio publikoak saltzen dituzten enpresei saltzeko.



Proiektuarekin hasteko, lehenik eta behin, *Laboral Kutxari* mailegu bat eskatuko diogu, izan ere, beste bakunekin alderatuz baldintza hoberenak eskaintzen dizkigun bankua da. Beste era batetara esanda, interesik baxuenak eskatzen dizkigun bankua da, %3ko interesa izanik.

